

IIIIU-
basque
2010-
2011



Bazkideentzako **txostena**

2010eko 3. hiruhilekoa



capturar - hacer - entregar

capture - create - delivery

hartu - sortu - eman

- < Innobasquek koordinatuko du ZTBP2015en lanketa-prozesua, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Kontseiluak aginduta. Planaren helburua, 2015ean, esparru honetan BPGaren % 3 mobilizatzea da.
- < Eko-Berrikuntzaren inguruko Lidergo Teknologiko-Lehiakorra: nazioarteko jardunbide egokienak identifikatu dira. 2011ko Ekoberrikuntzarako Ekintza Planaren diseinua hasi da 7 ekomunitateen garapenerako.
- < Gizarte Eraginkor eta Osasuntsua. Innobasquek Gaixo Kronikoen Komunitatearen garapenean laguntzen du. Zahartze aktiboaren inguruko sozializazio-ekimenen abiaraztea: wokak hiru hiriburuetan.
- < Presentzia Globaleko Ekintzailletza Sustatzea: 24 proiektu erregistratuak.
- < Laugarren Sektorea. Gizarte Ekintzailletza Laguntzeko Sistema abiarazi da eta negozio inklusiboak garatzeko Sport Mundi eta Mondragon Unibertsitatearekin lankidetzakordioak egin dira.
- < Berritzaileen Euskal Komunitateak marka berria du: Open Ideiak. 2.800 pertsonak baino gehiagok beren ekarpenak egiten dizkiote Euskadiko berrikuntza irekiko sare nagusienari.
- < Euskadi finantzazio gehien itzultzen duen hirugarren autonomia erkidegoa da Europako VII. Esparru Programan. Ekoizpena, Garraioa eta Energia dira euskal erakundeen lidergoa nabarmen uzten duten hiru ekintza-arloak. Manunet eta Era-net programetan parte-hartze arrakastatsua.
- < Iñaki Goenaga Fundazioaren Beka Programaren deialdia. Ekitaldi honetarako eskaerak % 30 igo dira.
- < First Lego League Euskadiren 2010 edizioa martxan. Mundu-mailako robotika txapelketan 250 gazte euskaldunek baino gehiagok parte hartzen dute. Gaiker - IK4 eta Tecnalia partner zientifiko gisa daude. Finala abenduaren 11n izango da Euskaltel-en egoitzan (Zamudio).

<<< 2010eko 3. hiruhilekora arte

- < Aktibaturiko erakundeak: 990
- < Lan-saioak: 150
- < Parte hartu duten pertsonak: 1.500
- < Entregaturiko txostenak: 45
- < Aurkezpen publikoak: 67
- < Bertaratuak: 5.600



<<< **Aurkibidea**

1 <<< Itun publiko-pribatua indartzea

1.1.- ZTBP

1.2.- Berrikuntza irekia giltzarri diren politiketan

2 <<< Inguruarekin bat Egitea

2.1.- **Dinamikak**

- Ekonomia Eko-berritzailea
- Gizarte Eraginkor eta Osasuntsua
- Ekintzaitza Sustatzea
- Laugarren Sektorea

2.2.- **BEK**

2.3.- **Inguruneak:**

- Hizkuntzen industria
- Kudeaketa Aurreratua
- Adimen Emozionalaren Partzuergoa
- Itaca Foroa

3 <<< Euskadi eraginkorrarekin konpromisoa

3.1.- **I+G+b Sistemaren Nazioartekotasuna**

3.2.- **ZTBESaren dinamizazioa**

3.3.- **Diplomazia berritzailea**

3.4.- **Innocampus**

3.5.- **Gastuen arrazionalizazioa**

B e r r i k u n t z a S o z i a l i z a t z e a



<<< Zer da Itun publiko-pribatua?

< Itun publiko-pribatua indartzea Euskadiko eraldaketa-prozesurako ekarpen berezietako bat da, eta nortasun ahaltsu eta bakarra ematen dio gure proiektuari.

Plataforma publiko-pribatua berezko eremua da gure herrialdearen eraldaketa dinamizatu eta bizkortzeko. Sare publiko-pribatuaren gaitasuna ahalik eta gehien garatzea beharrezkoa da gure gizartearentzat, parte-hartzea bideratzeko aukera ematen baitu, eta eraldaketari loturiko proiektu eta ekimenetan inplikaturiko eragile guztien ikuspegi partekatua hedatzen du. Gure osaeragatik, Innobasque topaleku egokia da hainbat sektoretako gizarte-eragileak, lan-eremuetan adituak diren pertsonak eta proiektuen liderrak diren erakundeak zuzenean edo zeharka inplikatzen dituzten ekimenak garatzeko. Innobasqueren zeregina "gidariarena" (driver) da, ondorengo bide hauei jarraituz:

- > Harreman-kapitala balioztatzea eta sare publiko-pribatuaren gaitasuna ahalik eta gehien garatzea, konektibitatea, ezagutzaren konexioa eta emaitzetara bideratutako balioztatzea erraztuz.
- > "Opentric" berrikuntza-eredu ireki eta zentratu baten bidez.

Irekia (OPEN)

- > Pertsona eta erakundearen parte-hartzera irekitako eredu, gobernantza-eredu berriek erabateko zentzua eta erabilgarritasuna aurki dezaten esparru ideala ezartzen duena.
- > Eredu horretan bilduta dago gure 1.000 bazkide baino gehiagoren kapital intelektuala, ezagutza eta Innobasque sortu zenetik bere barruan gauzatzen ari diren ekarpenak.

Zentratua (cenTRIC)

- > Ekintzan zentratua
- > Pertsonengan zentratua
- > Proiektu eta ekimen zehatzetan zentratua, eragin handiarekin eraldaketan eta neurtu eta zenbatu daitezkeen helburu espezifikoekin.
- > Politika publikoak erkatzea, ildo estrategikoak, erakundearen planak, lege-proposamenak... birformulatzea orientatutako eredu. "Zera publikoak" (Jaurlaritzak, Foru Aldundiek, Udalek, Departamentu-arteak Batzordeak...) gidaturik, parte-hartze pribatua behar duten proiektuek ari gara. Azken batean, gauzak egiteko era berri bati buruz ari gara.

1 <<< Itun publiko-pribatua indartzea

2010/2011

JARDUN-LERRO ESTRATEGIKOAK



1 <<< Itun publiko-pribatua indartzea

Zer da ZTBPa?

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Plana, ZTBPa, zientzia, teknologia eta berrikuntzarekin lotutako orientabide, baliabide eta apustu publiko-pribatuak definitzen dituen tresna estrategiko nagusia dugu.

Bere helburua 2015ean BPG-aren % 3 mobilizatzea da.

LASTER EGITEKOAK

< Berritzaileen Topaketa (GIPUZKOA BERRITZEN). Azaroak 16. Donostiako Teknologia Parkea.

1.1.- Innobasquek koordinatuko du 2015eko ZTBPren lanketa-prozesua

1. 2015eko ZTBP: gure etorkizuneko estrategia

Pasa den uztailaren 20an, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Kontseiluak "2015eko ZTBPren Oinarriko Jardun eta Ekonomia Ildoak" txostena onartu zuen. Dokumentu horretan, hausnarketa estrategikoa garatzeko oinarri izango diren koordinatu nagusiak xedatzen dira. Plan honen zeharkakotasuna dela eta, prozesuaren Lidergoa Lehendakaritzak hartu behar du bere gain Herrialdeko aginte nagusia baita.

Izaera horizontala duenez, 2015 ZTBPa koordinazio-maila altua eskatzen digu, bere proposamenekin jaso eta osatu beharreko erreferentziako Plan eta Estrategien multzoa barne hartuz. 2015 ZTBP berriak Estatuko Administrazioaren eskutik, ikerketa eta garapen zientifiko eta tekniko eta berrikuntzaren gaian jaso berri ditugun eskumenek eskaintzen dizkiguten aukerak artikulatuko ditu (urtarrilaren 13ko 2/2009 Dekretua).

Innobasque prozesuaren koordinatzaile operatibo izendatu dute, Zuzendaritza Batzordeak ZTBKarentzat egingo dituen lanak garatzeari begira.

2. Orientabide estrategikoak

> 1. I+G alorreko inbertsioa areagotzea.

2015ean, I+G alorrean eginiko inbertsioa % 3ra iristearen helburua.

> 2. Lankidetzeta, sarean lan egitea eta aliantza globalak sustatzea publiko eta pribatuaren arteko ardura partekatua esparruan

Planak, oinarriko orientabide gisa, aliantza sendo eta sare moduan sortzearen alde egiten du, hala, benetako "zientzia, teknologia, enpresa eta gizartearen ekosistema" aktibo eta dinamikoaren garapenean aurrerapausoak emango baititugu.

> 3. Balioa ematea ezagutzen oinarrituta eta erronka globalak aprobeztatzea

ekoizpen-sistema eta, bereziki, enpresak, berrikuntza-sistemaren funtsezko elementu ditugu: enpresak dira berrikuntza egiten dutenak, ezagutza eta teknologia merkatura eramanez eta balioa sortuz.

> 4. Gizarte-berrikuntza bultzatzea

Ikerketa-bide sozialak artikulatzea eta zeharkakotasuna ematea, premia handia adierazten dutenei eta nahi den gizarte-ereduarekin bat datozen lehentasuna emanez.

> 5. Nazioarteko erreferentzia izango den zientzia-sistema garatzea

Prozesu honek zientzia, teknologia eta berrikuntzarako sistema eta, bereziki Euskal Unibertsitate Sistema, Europako Ikerketa Espazioan erabateko integrazioa artikulatzeko ibilbide nagusia eskainiko digu.

> 6. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sarea sustatzea

ZTBESA Berrikuntzaren Euskal Sistema sendotzeko funtsezko tresna gisa jaso zen eta, ikuspuntu operatibotik, eragileen finantzazioa erregulatzeaz arduratzen da. Hainbat erakunde publikoren bidez, bereziki Eusko Jaurlaritzaren bidez, ko-finantzatutako sarea da.

> 7. Zientzia-, teknologia- eta enpresa-talentua erakartzea

Esparru estrategikoetako goi-mailako ikerlari eta profesionalen prestakuntza, antzematea eta bertan atxikitzea alde kritiko bat da nazioartean lehiakorra izango den zientzia, teknologia eta berrikuntzaren ekosistema indartzeko.

> 8. Parte hartzen duen gizarte eta herritarra

Gizarte orientabide estrategikoekin bat eginaraztea funtsezko gaia dugu ezagutzaren buruan dauden gizartearen artean Euskadi kokatzea bermatzeko. Halaber, parte-hartze eta irekierarako mekanismoak aktibatu behar dira, herritarren parte-hartzea erronka globalen inguruan artikulatzeko aukera eskaini eta Euskadiren nortasun-ezaugarri gisa zientzia, teknologia eta berrikuntza adierazten duen ikuspuntua indartzeko.



1 <<< Itun publiko-pribatua indartzea

ZTBP ERANSKINA - Historia apur bat...

Tradizionalki, Planak gure ekoizpen-sistemaren ondoz ondoko eraldaketak gidatu ditu, hausnarketa estrategiko horien ondorioz, besteak beste, laguntza-mekanismo instituzionalak edo horien garapenerako aurrekontuetako diru-kopuruak emateko ideiak sortu baitira.

- > Plan horietan lehena, **1990-1992ko Estrategia Teknologikoko Plana**, (ETP) delakoa izan genuen. Plana egin ahal izateko, 1989an sortu zen SPRiren Estrategia Teknologiko eta Berrikuntzako Unitatea (ETBU), eta hori genuen Eusko Jaurlari tzak I+Ga bultzatzearekin loturiko programa eta jardueren kudeaketaren arduraduna.
- > Ondoren, **1993-1996ko Teknologia Industrialeko Plana (TIP)** etorri zen. Plana 1991-1995eko Politika Industrialaren Esparru Orokorren jarraibideen ildotik onartu zen, eta Teknologiaren Euskal Kontseiluaren (TEK) jarraibideen arabera. Kontseilua Eusko Legebiltzarrak onartu zuen 1993an.
- > **1997-2000ko Zientzia eta Teknologia Plana (ZTP)** 1996-1999ko Politika Industrialeko Jarduneko Esparru Orokorren barruan definitu zen. Aldi horren ezaugarria Zientzia eta Teknologia Euskal Sistema sendotzea izan zen, eta aldi berean programa-agendara gaineratu zen eskari teknologikoa sistematikoki sustatzeko premia Euskadiko enpresen eta ekoizpen-sektoreen aldetik.

Zientzia eta Teknologia Plana inflexio-puntua izan zen Zientzia-Teknologia-Enpresa sistemaren multzoa gehiago integratzeko asmoan. Sistema zientifikoaren eta teknologikoaren integrazio hori Hezkuntza Sailaren (politika zientifiko) eta Industria Sailaren (politika teknologikoa) lankidetzari esker bideratu ahal izan zen. Sailen arteko lankidetzari hori bultzatze aldera, 1997an sortu zen Euskal Teknologia Sarea, Unibertsitate biltzen zuena, eta Teknologiaren Euskal Kontseilua (TEK) zabaldu egin zen Unibertsitatea eta Hezkuntza Saila bera biltzeko, eta Zientzia eta Teknologiaren Euskal Kontseilu (ZTEK)

gisa izendatu zuten. Zientzia eta Teknologia Planaren finantzaketa publikoa 64,2 milioi eurora iritsi zen 2000. urtean.

- > **2001-2004ko Zientzia Teknologia eta Berrikuntzarako Planak (ZTBP)** Euskadi nazioartean zientzia eta teknologiaren ikuspuntutik herrialde berritzaile gisa sendotzea zuen helburu, 1997-2000ko Zientzia eta Teknologia Planean bezalaxe izaera integratzailea atxikiz. Integrazio-mailak modu kualitatiboan egiten zuen aurrera, planak bateratu egiten baitzituen lehiakortasunari eta ikerketari buruzko ikuspegi berriak eta indartu egiten baitzituen horien osagarritasuna Eusko Jaurlaritzaren beste ekimen batzuekiko, hala nola, Euskadi Informazioaren Gizartean Plana edo 3E 2010 Estrategia Energetikoa. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Planaren aurrekontua 2001ean 132,4 milioi eurokoa izatetik 2004an 173,9 milioi eurokoa izatera pasa zen.
- > 2007ko urrian **2010eko ZTBP**a aurkeztu zen, ildo honetako azken erreferentzia estrategikoa. Aurreikuspena baliabide publikoen 2.000 milioi euroko mobilizazioa zen eta I+Geko inbertsio-helburu gisa BPGaren % 2,25 jo zen. Alde horretaz gain, Planak aldaketa instituzional nabarmena ezarri zuen Lehendakaria buru duen Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Kontseilua sortu baitzen. Kontseiluak Sistemaren ordezkarien artean erakundeen presentzia handiagoa zuen eta beren ardura estrategia bermatzea eta orientabide estrategikoa eskaintzen zen, besteak beste, bosturtekorako 200 milioi euro zituen Berrikuntza Funtsaren aplikazioaren bidez (urteko 40 milioi). Eraginkortasunari begirako izaerarekin, Ikerbasque (Zientziarako Euskal Fundazioa) eta Innobasque ere sortu ziren. Planean jasotzen denez, Innobasque-ren helburua "Berrikuntzaren Euskal Sistemaren koordinazio-organo nagusi bihurtzea" eta "zientzia, teknologia eta berrikuntzarako politika berriaren ezarpen-prozesuari begirako" laguntza eskaintzea da.



1.2.- Berrikuntza irekia giltzarri diren politiketan

- > **Ikerketa eta gizarte-berrikuntzarako estrategia:** Azterketa horren ondorioak aplikatzen dihardugu, gure ibilbideetik, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Planean jasotzeko funtsezko faktore baitugu. (Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saila - EUSKO JAURLARITZA). [GIZARTE BERRIKUNTZA].
- > **Lehiakortasun Plana 2010-2013.** Uztailen Planaren kontraste-talde desberdinen lana amaitu zen. Bertan, 300 eragilek baino gehiagok hartu zuten parte 9 tailerretan. Proiektuaren Zuzendaritza Batzordeak (Innobasque, Eusko Jaurlaritzako Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saila, Orkestra eta Euskalit) Planaren behin betiko testua egin du. Bertan, ildo honen jardun estrategikoak jasotzen dira, bai eta horietako bakoitzerako ardurak, baliabide eta helburuak ere. Irailaren 7an, astearte, Eusko Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu zitzaion testua, izapideak egin eta behin betikoz onar zezan. Beraz, datozen hilabeteetan ebaluazio- eta segimendufaseari ekingo zaio. (Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saila - EUSKO JAURLARITZA). [ENPRESA BERRIKUNTZA].
- > **Gazteek parte hartzeko plan pilotua:** Esperientziaren lehen zatia Mungiako Udalarekin amaitu ostean, ondorio eta gomendioen txostena egiteari ekin zaio. Bertan, proiektuaren behin-behineko jarraipenaren alde egin beharko da. Eta, halaber, esperientzia gidatu duen lan-metodologiarekin eskuliburua lantzeari ere ekin zaio. Ekimenaren oinarri izan zen i-taldeak bere lanarekin jarraitzen du parte-hartze prozesuen kudeaketa gidatzeko Bidai Orria garatzen, Autonomia Erkidego honetako tokiko esparruetan dauden jardunbide egokien azterketa oinarri hartuta. (Mungiako Udala - Bizkaia). [GIZARTE BERRIKUNTZA].
- > **Bizitzan zehar ikasteko lege baterantz:** Heziberri plataforman aurrera jarraitzen du lege berriaren lanketarako oinarrien eztabaidak. (Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila - Eusko Jaurlaritza). [GIZARTE BERRIKUNTZA].
- > **"ELGaren azterketa Eskualdeko Berrikuntzari buruz: Euskal Autonomia Erkidegoa"** ELGaren txostena egiteko helburu nagusia gure berrikuntza-sistemaren inguruko kanpoko ikuspuntu aditua lortzeko beharrak baldintzatu zuen. Azterketak aukera hauek eskaini beharko lizkiguke:
 - Euskal Berrikuntza Sistemaren inguruan ditugun emaitzak ELGAko beste eskualde batzuekin partekatzea.
 - Eragin biderkatzailea lortzea eskualdearentzat, lanketa-prozesuan Berrikuntzaren Sistemaren parte hartzen duten hainbat eragileren ikuspuntuak biltzearen ondorioz.
 - Sistemaren eskualde-aktore desberdinentzat hobekuntza-gomendioak lortzea.
 - Eskualdea bera ikusteko moduan jartzea ELGaren txostena argitaratuz eta ondoren barreiatuz.
- > **Enplegu Estrategia:** Enplegu-politika aktiboen transferentziaren aurrean, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gauetako Sailak hiru kontraste-talde osatu berri ditu. Innobasquek "Enplegu-politiiken kudeaketarako tresnak hobetu eta modernizatzea" deiturikoan parte hartzen du. Lehen bilera 2010eko irailaren 30ean egin zen. [GIZARTE BERRIKUNTZA].
- > **Goi-mailako Prestakuntza duten (GPP) eta Euskadin bizi ez diren pertsonak.** 2010 amaierarako, azterketa berri baten bidez, GPPa erakartzeko prozesuaren bilakaera on line jarraitzeko aukera izango da. Azterketaren helburuak honako hauek lirateke: profil hori euskal erakundeetara txertatzeko driverrak antzematea, lan esperientziaren eta esperientzia pertsonalaren DAFO azterketa egitea, erakartze-prozesuan zein kontratatze eta harrera-prozesuetan hobetzeko dauden esparruak identifikatzea eta erakundeek profil horrekiko dituzten beharren azterketa egitea.

1 <<< Itun publiko-pribatua indartzea

BIDERATZEN ARI GARENA:

- < 10 erakunde-plan
- < 428 erakunderen parte-hartzearekin (590 pertsona)
- < 25 lan-saiotan
- < 20 txosten entregatuta

IREKITAKO LAN ILDOAK:

- < Lehiakortasun Plana 2010-2013.
- < Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Plana 2015.
- < Bizitzan zehar ikasteko lege baterantz Euskadin.
- < Gizarte Berrikuntzan Ikertzeko Estrategia.
- < Prestakuntza Handiko Pertsonak, Euskadin bizi ez direnak, 2007-2009 artean kontratatutak
- < Gazteek parte hartzeko plan pilotua.
- < ELGaren azterketa Eskualdeko Berrikuntzari buruz: Euskal Autonomia Erkidegoa
- < Lehendakariaren Aholku Batzordea
- < Enplegu Estrategia.
- < XXI. mendeko udalerriak.

2010ean AMAITUA:

- < Etxebizitzaren aldeko Itun Soziala.


LASTER EGITEKOAK

- < Iraunkortasunaren aldeko Gizarte-Eztabaida . Euskadi 2020
- < Gizarte-etzabaida "Bizitzan zehar ikasteari buruzko legea" (abendura arte).
- < ELGaren txostena: Eztabaida eta "OECD Territorial Development Policy Committee" delakoan Review-a onartzea, Euskadiko ordezkarien parte-hartzearekin. (2010eko abendua)
- < Open Days: Euskadiko Gizarte Berrikuntzan izandako esperientziaren inguruko osoko bilkuran parte hartzea eta Risk txostenaren aurkezpena.
- < Eskualdeen Batzordea
- < Ingurunera irekitako eskola: txosten teorikoaren garapena.



konektibitatea

eragina



2 <<< Inguruarekin bat egitea

2010/2012

JARDUN-LERRO ESTRATEGIKOAK

Gure erronkak, beren etorkizuna garapen eta hazkunde jasangarriaren eredurantz bideratzen duten gizarte aurreratu guztienak dira. Azken finean, bere industriaren ekarpena sustatu eta babesteko asmoekiko koherentea baita, horien lehiakortasuna eta nazioarte-mailako presentzia areagotuz. Helburu orokor horri heltzeko bideak berrikuntza du ezinbesteko geraleku, Euskadin nahiz munduko gainerako txokoetan, berrikuntzan egon baitaitezke prozesu horren giltzarriak. Bide horretan, Eraldaketa zerumugan dugula, euskal sare berritzailea hedatu eta funtsezko sektoreetara aplikatzen dihardugu.

Aktibazio-helburu horrekin, 5 makro-joera globalekin egiten dugu bat. 5 domeinu horiek, azken finean, Innobasquek hasieratik jorratu dituenak izan dira:

- > Gizarte-garapena
- > Garapen ekonomikoa
- > Iraunkortasuna
- > Osasuna eta bizi-kalitatea
- > Eszenatoki berriak

5 domeinu horien gurutzaketaren egungo emaitzak lau eraldaketa-dinamika handi definitzeko aukera eskaini digu. Esparru horiek funtsezko ditugu eta horietan ari gara gure esfortzuak bideratzen 2010/2011 honetan: ekonomia eko-berritzailea, presentzia globaleko ekintzailtzaren sustapena, Laugarren Sektorearen (ekonomia soziala) garapen eta nazioartekotzea eta Gizarte Eraginkor eta Osasuntsua.



2 <<< Inguruarekin bat egitea

Euskadi, gure bizi-kalitateari eutsiz, gure enpresen lehiakortasuna hobetzen lagunduz eta, aldi berean, negozio-aukera berriak aprobetxatuz, energia- eta baliabide-kontsumo baxuko gizarte bilakatzeko beharrezko diren ikuspuntu eta hedapen-planak garatzeko aukera eskaintzen du dinamika honek.

ASMOAK

- < Lidergo Teknologiko Lehiakorreko "marka" sortzea.
- < Hazkunde ekonomikoa - enplegua eta ingurumenaren gaineko eraginaren arteko oreka bilatzea. (Garapen jasagarria)
- < Inbertitutako kapitalaren gaineko tarteak eta errentagarritasuna hobetzea.

2.1.a- Eraldaketa-dinamika: Ekonomia eko-berritzailea

NOBEDADEAK

- > Nazioartean dauden Best Practices direlakoan identifikazioa eko-berrikuntzaren inguruan Lidergo Teknologiko Lehiakorreko "herralde marka" sortzeko. Hala nola: Climate Consortium Denmark, partzuergo Publiko-Pribatua, epe luzeko helburu gisa teknologia garbiko esportazio daniarak areagotzea, enplegua sortzea eta inbertsioak, zientzialariak eta ikasle atzeritarrak Danimarkara erakartzea da. (Ikusi: www.klimakonsortief.dk)
- > Eraldaketa-dinamika egituratu ditugun zazpi ekomunitateak dinamizatzen lagunduko duen 2011ko Ekintza Ekoberritzaileko Planaren diseinuaren hasiera.
- > BAI+5 hausnarketa-prozesua abiatzea, Eusko Ikaskuntza, Aclima, Mugikortasun eta Logistika Klusterra eta Innobasqueren artean, euskal gizartearentzat Garapen Iraunkorreko berriazko ereduak lantzeko helburuarekin sortua. Prozesua lau lan-bileratan egituratu da eta abenduan amaitzea aurreikusten da, identifikatu diren 6 esparruetan zer gertatzen ari den galderari erantzun dion txostena egitearekin batera. Aipatu esparru horiek, honako hauek dira: Lurraldearen eta Baliabideen Antolamendu eta Kudeaketa; Gizarte Dimentsioa; Enpresa Dinamismoa; Ekonomia eta Fiskalitatea; Energia; eta Garraioak. Halaber, Berritzaileen Euskal Komunitatearen barruan lan birtualen taldeak bideratu dira.


- > Eraikuntza jasagarriaren esparruan I+G+b proiektuak abiarazteko proposamenaren diseinua.
- > Zazpi ekomunitateei lotutako esparruetan baldintzatutako start-up-ak bultzatzea. Proiektuak:

- Minisorkuntza Banatuaren proiektua: Energia berriztagarriak sortzen dituzten ekipo txikiak eta, bereziki, eoliko txikiak, Euskadin masiboki instalatzeko baldintzak sortu nahi dira. Hala, gure herrialdea erreferente bilakatuko litzateke jasagarritasunerantz gure berrikuntza energetikoa bultzatuko duten energia berriztagarrien sorkuntza txikiko sare elektrikoek ezarpenean. Hasiera-fasea: Instalazio-pilotuaren kokalekua Tolosan identifikatu da. Tolosako udala, EVE, Gipuzkoako Foru Aldundia. [GIPUZKOA BERRITZEN]

LASTER EGITEKOAK

- < ReRisk txostena
- < 2011ko Ekoberrikuntzarako Ekintza Plana
- < Nazioarteko kongresua ECO2nomics esparruan, euskal enpresen ehuna eko-berrikuntzaren inguruan dinamizatzen laguntzeko.

Berrikuntzaren EKOMunitateak Euskadin: Jardun-esparruak





2.1.b- Gizarte eraginkor eta osasuntsuaren dinamika

NOBEDADEAK

- > **Elikadura:** esparru honetan, "Nekazaritzako elikagaien Berrikuntzarako Laborategi" baten jardun-ikuspuntua definitzen ari gara, Ingurumena, Lurralde Antolamendua, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren enprekin elkarlanean.
 - Laborategia plataforma presentziala eta bertuala izango da eta bertan, nekazaritzako elikagaien balio-kateko eragileek (eskaria zein eskaintza) beren kezka, behar eta erronkak partekatuko dituzte, berrikuntza areagotu eta erradikala oinarri izango duten proiektu bilakatzen.
 - Saileko enpresek, gainera, input gisa erabili ahal izango lukete plataforma, etengabe beren zerbitzuak sektorearen premia errealetera bideratu ahal izateko, eta baita, Nekazaritzako elikagaien Berrikuntzaren Foroak ere, etorkizuneko balizko ekintza eta politiketarako.
- > **Gaixo kronikoak:** Innobasque Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Kontsumo Sailarekin ari da elkarlanean, Euskadin gaixo kronikoen erronkari aurre egiteko Estrategiaren barruan, Gaixo Kronikoen Komunitatearen garapenean. Komunitatearen helburua gaixoei eta beren ingurukoei (familiartero, lagun eta zaintzaileei) adorea ematea da, beren gaixotasunen ezagutza, kontrola eta norberaren kudeaketa hobetu dezaten, ohitura osasungarriak izan ditzaten eta, beraz, beren gaixotasunek eragin ditzaketen arazoei aurrea har diezaieten. Honakoa sustatzen da bertan:
 - Esperientziak, eguneroko bizitzarako gomendioak/trikimailuak, zalantzak, kezkak, esperantzak... partekatzea eta elkarri babesa adieraztea.
 - Medikuen kontsultan eta egungo komunikabideen bidez (Internet, TB, prentsa...) eskura dezaketen informazioa ebaluatu eta aprobetxatzen lagunduko dieten informazioa, baliabideak, prestakuntza... partekatzea.

Gaur egun, Elkarrekintza Diseinuaren fasean gaude. Fase horretan helburu diren herritarrak eta beren profilak, segmentu bakoitzerako elkarrekintza-mota eta eskaini beharreko eduki eta zerbitzuen ezaugarritza definitzen ari gara.

- Azkenik, eta gure kideekin izandako elkarrizketen ondorioz, "Osasun Ekintzarako Elkargunea" sakontasun gehiagoz lantzeko aukera ari gara aztertzen. Bertan, sektorearen barruko produktu eta zerbitzuen garapena sustatzea da helburu Euskadi gai horretan erreferentziatzeko eskualde bilakatzen.

ZAHARTZE AKTIBOA

Proiektu honen helburua gizarteak zahartzearekiko duen ikuspuntu eta jarrera aldatzea da, bizitzan zeharreko prozesu gisa ulertzea ez ezik, baita pertsona zaharrak subjektu pro-aktibo gisa hartzea ere. Gizarte-mobilizazio eta -kontzientziatorako lehen pausu gisa, hiru woka (lurralde historiko bakoitzeko bat) antolatzea erabili da. Bertan, pertsona zaharren portzentaje altuak izango dituen gizartearen eskenatoki berriari aurre egiteko beharrezko diren alternatiba sozialak jorratuko dira. BBK, VITAL eta KUTXAren laguntzarekin. [ZAHARTZAROAREN iTALDEA]

2 <<< Inguruarekin bat egitea

Aldaketa demografiko eta sozialei eta bizimodu berriei lotuta Euskadi bezalako gizarte aurreratu baten inguruan zeharkako ekintza-proposamena. Lan-esparru hau krifikoa eta gure ingurune hauskarketa estrategiko guztietan potentzial gehien duena da eta, erakunde publiko, enpresa zein erakunde pribatuentzat interes izugarria duen ekintza-esparrua adierazten digu. Dinamika honek hedapen zabala badu ere, honako premia hauek ardatzen da:

- < Bizitza-ohitura osasungarriak babestu eta sustatzea pertsonen bizitzan zehar.
- < Gaixotasun kronikoen ezagutza eta norberaren kudeaketa sustatzea.
- < Gure ingurune sozio-ekonomikoak egokitzea eta eskenatoki soziodemografiko berriaren premiei erantzutea, garapen-aurkera bihurtuz.
- < Nekazaritzako elikagaien balio-katearen jardura berritzaileen kontsumitzaileen bizitza-premia osasungarrien inguruan sustatzea.

INNOBASQUEREN PAPERA

- < Erakunde, pertsona, instituzio eta komunitateek lankidetzan ekimen berritzaileak definitu, garatu eta ezar ditzaten elkar laguntzeko esparruak sustatzea.
- < Gizarte, Osasun eta Bizi-kalitatearen Garapenean balio-mundua osatzen duten eragile desberdinen arteko mugetan zehar lan egitea.
- < Hainbat ikuspuntu dituzten eragileen arteko hurbilketa sustatzea, osasun jasagarria hobetuko duten ideia eta ikuspuntu berrien abiatzea antzeman eta azkartzeko.

LASTER EGITEKOAK

- < Woka Zahartze Aktiboa (azaroak 25, 3 hiriburuetan)
- < Woka Action. Neiker-en egoitzan.



2 <<< Inguruarekin bat egitea


ERANSKINA - ERAGIN GEHIENENKO ESPARRUAK

Gaixo kronikoak- Bere gaixotasuna kudeatzen duen gaixo informatuaren garrantzia.

- > Irailaren 29an, Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Kontsumo Sailak kronikotasunaren erronkari Euskadin aurre egiteko Estrategia aurkeztu zuen. Aipatu txostenaren hitzaurrean, Rafael Bengoa Sailburuak dioenez, "hurrengo hamarkadetan, euskaldunen % 26a, baby boomer-ak, 65 urteik gorakoa izango da. Gure gizarte, aurreneko aldiz, egoera berri bati aurre egiteko prest egon beharko da, alegia; gaur egun 50 urte dituztenek gurasoak zaintzen, seme-alabak zaintzen eman zuten denbora baino luzeago eman beharko dute. Gure gizarte-politikan eta zahartzeari buruzko gure kontzeptuetan aldaketa handirik eman gabe, ezinezkoa izango zaigu egungo gizarte-egoerari aurre egitea".

Baliabideak modu eraginkorrean erabili ahal izateko, esku-hartze motak pazientearen beharrietara dolizea ezinbestekoa da

Euskadiko Kronikoen Atentzio-ereduaren egokitzapena



Iturria: Ed Wagner-ek eta MacColl Institute for Health Innovation-eko laguntzaileek garatua. O+Berrik egokitu, Berrikuntza Sanitariako Euskal Erakundeak

	Norberaren zaintza	Kontsulta mediko telefonikoa	LMako erizaintzako kontsulta	LMako kontsulta medikoa	Especialistako kontsulta	Kasuen kudeaketa	Esnerako ospitaleratzea	Ospitaleratzea egonaldi ertaina	Ospitaleratzea kutua
Esku-hartze/Egonaldiko Kostua €/egun	0€	<10€	25€	35€	50€	100-150€	50-200€	400-300€	700-900€
Atentzio maila	Oinarritzo beharrian xumeak atentzitea	Anlisi klinikoak eta bitarteko atentzia	LMko diagnostiko konplexu espezializatua	Diagnostiko konplexuak	Atentzioaren integrazioa eta kudeaketa integrala	Oinarritzo jarraipen medikalizatu	Jarraipen medikalizatu ertaina	Jarraipen medikalizatu aurreratua	
Paziente-erentzako etenaldia	Guztienezkoa	Mugatusa	1-3 ordu kontsultara joateko eta egiteko	2-5 ordu kontsultara joateko eta egiteko	Harremana aldion erreferentziako pertsonarekin	Aldaketak etre eta bisitatu / harremanak sarritan	Etenaldi altua	Etenaldi oso altua	

Iturria: Osapiketak emandako estimazioak. Osabideren datuak eta nazarteko adibideak, geuk egina

Euskadin zahartzearen inguruko politika eta kontzeptu berriak ezartzen lagunduko duten produktu eta zerbitzuen garapena, gure ingurunearentzat hazkunde ekonomikorako aukera da.



2 <<< Inguruarekin bat egitea

PRESENTZIA GLOBALA DUTEN ENPRESA BERRITZAILEAK GARATZEA (PGEb)

Innobasquek azkartze eta aberaste-prozesua bat sortu du jada eratuak dauden eta hazteko aukera duten enprezentzat. Garapen-esparru hori bultzatzen duten berariazko programekin (Connect, Ekarpen...) elkarlanean.

Zer da PGEb bat?

- < Enpresak dira (ez proiektuak)
- < Izaera berritzailea dute: beren salmentak azken hiru urteotan merkatuan sartutako produktuen % 25 baino gutxiagoren menpe daude.
- < Nazioartekotutak: beren salmenten % 25 edo gehiago esportatzen dute.
- < Hazkunde azkarrekoak: langileen kopuruaren gorakada hiru urtetan % 20 baino altuagoa da.

Gaur egun, PGEbren definizioa eguneratzen ari da gure ingurunearen eskenatoki malgura egokitzeko, hiru ezaugarri horiek neurtzeko itxi batera soilik dituzte PGEb bat izan daitekeenaren beste gai konplexu batzuk baztertzera eramango gaituen arriskua baitago.

NAZIOARTEKOTZEA:

- < Innobasque Ekintzailetzaren Laguntza zuzenerako Nazioarteko Aduituen taldean, Bankinter Fundazioa buru duela.
- < Saiolan: "Txinan murgiltzea EAEn Garatu beharreko balizko Enpresa Jarduera Berrien inguruko ideiak antzemateko eta Nazioarteko Lankidetzarako Sareak Eraikitze" lankidetzahitzarmena sinatu da.

< BFAk 50.000 euroekin laguntzen du PGEben dinamizazioa Bizkaian.

LASTER EGITEKOAK

- < Foro Enprende: Spiren eskutik, Ekintzailetzaren Foro Nazionalaren barruan (urriak 18 eta 19, BEC)
- < Innobasqueren Asteartea (2010eko azaroak 16), ekintzailetzaren inguruko posizionamenduaren aurkezpena.

2.1.c- Ekintzailetza sustatzeko dinamika

NOBEDADEAK

1. PRESENTZIA GLOBALA DUTEN ENPRESA BERRITZAILEAK GARATZEA (PGEb)

Ekintzailetza Sustatzeko Batzorde Operatiboa martxan jarri ostean, Dinamika honetan lehentasuna duten helburuak zehaztearren, lehen PGEba jaurtitzeko lanetan ari gara eragile parte-hartzaileekin batera.

Aurrerapenak:

- 1.- **Proiektuen azterketa.** Orain arte 24 proiektu erregistratu dira. Horietatik 9 irekiak daude eta 4 bideratuak izan dira. 6 baztertu egin dira. 5 proiektu daude sustatzaileen azterketa-fasearen zain beren prozesuari ekiteko.
- 2.- **PGEben Aberaste edota Azkartze Prozesua.** Martxan jarri dugun prozesuaren arabera, jada 3 enpresa ditugu Aurretiazko Erkatzearen ostean eta azterketa osagarriekin, horiek aberastu edo azkartzeko behin betiko ebaluaziora iritsiko direnak.
- 3.- **Benchmarking EAEko Presentzia Globala duten Enpresa Berritzaileak.** Barnean landutako azterketa kualitatiboa amaiera-fasean, EAEko PGEben 10 kasu jasotzen dituen. Entrega-eguna azaroaren 16an izatea aurreikusten da.
- 4.- **Etokizuneko PGEben proiektu berrien antzemate eta identifikazioa.** EAEko Klusterrek eman dioten harrera bikainaren ondorioz, dinamikaren aurretiazko fasean 3 enpresa berri txertatu dira.
- 5.- Hitzarmenera iritsi gara Opinno-rekin (Nazioarteko ekintzailetza aurreratuaren sarea, egoitza San Franciscon duena) bere sareko nazioarteko Nodoan sartzeko aukera eskaintzen diguna.

2. BARNE- EKINTZAILETZA

BIC-BERRILANekin batera, Gipuzkoako 3 enpresatan (Korta Group, Gorosabel eta Egile taldea) Barne-ekintzailetzako Esperientzia Pilotuaren bigarren fasea abiarazi da, B+I-ren lankidetzarekin. Fase honen helburua Gipuzkoako Lurraldean barne-ekintzailetza jardueraren bultzadarako ezarri den lan-eredua baliozkotzea da. [GIPUZKOA BERRITZEN]



2.1.d- Laugarren sektorearen dinamika

NOBEDADEAK

1. **"4. Sektorea" Partzuergoaren** eraketa: komenigarriena den forma juridikoa erabakitzen ari da, ziur aski, GT (Garapen Taldea).
2. **PIRAMIDEAREN OINARRIA** (BdP gazteleraz eta PoP ingelesez), "Euskal Ekonomiak Piramidearen Oinarrian duen Berrikuntza Gaitasunari buruzko diagnosis" garatzen dihardugu. (IKUSI ERANSKINA ONDORENGO ORRIALDEAN).
3. **Gizarte Ekintzailletza.** Honako proiektua jarri da martxan: "EAEn Gizarte Ekintzailletza Laguntzeko Sistema" (txostena Berritzaileen Euskal Komunitateko Laugarren Sektoreko taldean dago eskuragai). Eutokia Gizarte Berrikuntza Zentroaren (Lan Ekintza-Bilboko Udalak sustatua) ezartze-laguntzarako lehen ekintza da eta gaur egun dagoen Ekintzailletza eta Gizarte Berrikuntzarako Zentro bakarra da.

4. **Enpresen Gizarte Erantzukizuna.** EGE iTaldea osatzen duten 28 erakundek parte hartzen dute aktibatutako 3 proiektuetan.
 - **EGE ukiezinaren balio-ematea.** Euskadin EGEaren inguruko agiri adostu baten definizioa, erakundeetako zuzendaritzari EGEaren eta balioa sortzearen arteko korrelazioa ulertzeko aukera eskainiko diena.
 - **EGE aplikatzeko esparrua sortzea,** jada garatuak dauden metodologia desberdinak bildu eta EGEa Euskadin modu orokor eta eraginkorrean aplikatzeko eragile desberdinen artean adostutako ekintza-planaren ezarpena bultzatuko duena.
 - **INNOVALAN.** Buruko gaixotasuna duten pertsonak Bizkaiko Parke Teknologikoko enpresetan txertatzeko proiektua. Osakidetza eta BPTko hainbat enpresarekin batera, minusbalioetasunak dituzten pertsonak lan-merkatuan txertatzeaz arduratzen diren eragile eta gizarte-fundazio nagusiek hartzen dute parte.

2 <<< Inguruarekin bat egitea

- < Dinamika honen helburua gizarte-xedeak dituen enpresa-jarduera garatzea da, gaur egun esparru honetan diharduten erakundeen ahalmena areagotuko duen lan-esparru globala eskainiz, lan-esparru global berriak abiaraziz eta horien nazioartekotzea sustatuz.
- < Laugarren Sektorearen eta, bereziki, gizarte-ekintzailletza eta negozio inklusiboen sustapenerako hitzarmena, Sport Mundi GKE eta Mondragon Unibertsitatearekin, "Surf Eguna Edition" dela eta (urriak 9, Donostia).

HAUEKIN JARRAITZEN DUGU:

- < Euskadin 4. Sektoreak duen egoeraren azterketa, EHU, Deustuko Unibertsitatea eta Mondragon Unibertsitatearekin.
- < "Piramidearen oinarria" proiektuak.

< **"4.700 milioi pertsonak egunean 3.700 M€ baino gehiagoko erosketak egiteko ahalmena dute".**
["The Next 4 Billion", The World Resources Institute.
Ikusi hemen: www.scinet-corp.org/next.pdf]

LASTER EGITEKOAK

- < "EGE eta Subsidiaritatea" txostena landu da Eusko Jaurlaritzako Kanpo Ekintza eta Eskualdeen Batzordearentzat.
- < Piramidearen Oinarriaren diagnosiaren aurkezpena (2011ko urtarrilak 18).



ERANSKINA - PIRAMIDEAREN OINARRIA

Pasa den ekainena Piramidearen Oinarria – Nazioartekotzea i-Taldearen jarduera hasi zen (Laugarren Sektoreko Dinamika Eraldatzailearen esparruan). Txertatu beharreko helburuak honako hauek dira.

Ekintza-ildo horretarako, Bartzelonako Piramidearen Oinarriaren Laborategiaren lankidetzat dugu (Pompeu Fabra Unibertsitateko Nazioarteko Merkataritzako Goi Mailako Eskolari -ESCI- atxikia eta POko Labs Nazioarteko Sareko kide). Laborategia "Euskal Ekonomiari Piramidearen Oinarria duen Berrikuntza Gaitasunari buruzko diagnostika" egiten ari da Innobasquerentzat, galdetegi, sakontasunez eginiko elkarrizketen eta beste iturri batzuen kontsultaren bidez. Aipatu azterketa argitaratu eta etorkizuneko Innobasqueren Asteartean aurkeztuko da.

Azterketa hori oinarri hartuta, euskal enpresarentzat Piramidearen Oinarriaren negozioaren prototipoa lantzea bultzatuko da, oraindik zehazteke dagoen garapenean herrialdeko eskualde zehatz batean, enpresa-multzo batekin egingo den esperientzia pilotuaren bidez.

AZTERKETAREN ATARIKOAK

- > Inkestan parte hartu dutenentzat Piramidearen Oinarria enpresa-ekimena proposatzerakoan erabakigarri diren faktoreak: berrikuntza negozio-ereduan eta aliantzen garapenean.
- > Piramidearen Oinarria enpresa-proiektuen garapenean garrantzitsuen diren eragileak: Tokiko komunitate eta ekintzaileak, bai eta enpresa-sektorea ere.
- > Enpresa-ekimenei ekiteko garapenerako gaitasun handien duten sektoreak: oinarritzko premiekin lotutakoak (ura eta saneamendua, osasuna, energia, hezkuntza, elikadura edo etxebizitza).
- > Aukera gehien adierazten dituen eskualdea: Latinoamerika. India eta Txinak ere balorazio positiboak izan dituzte.

2 <<< Inguruarekin bat egitea

Piramidearen Oinarria terminoarekin beheko estratu ekonomikoan kokatzen diren herritar pobreez osaturiko segmentu sozio-demografikoari egiten zaio erreferentzia. Herritar horiek bereziki ekonomia informalean aritzen dira, asegabeko oinarritzko premia-sorta zabala dute, bai eta merkatu-ekonomian aktiboki parte hartzea galarazten dieten murrizketak ere, eta, beraz, beren garapena bermatzeko ondare eta zerbitzu bideragarriak eskuratzeko aukerarik ez dute. Segmentu hori, egunero 3 dolar baino gutxiagorekin -parekotasuna erosteko ahalmenean- bizi diren 4.000 milioi pertsonen osatzen dute. Segmentu horren diru-sarrerak, dolar arruntetan, Brasilen 3.35\$ baino baxuagoak dira, Txinan 2,11\$ baino baxuagoak, Ghanan 1,89\$ baino baxuagoa eta Indian 1,56\$ baino baxuagoa. Segmentu hori mundu mailan erregistratuta dauden 5.575 milioi pertsonen % 72 da eta Asian, Afrikan, Ekialdeko Europa eta Latinoamerika eskualde batzuetan eta Kariben, segmentu horrek gehiago ia osoa osatzen du.

Piramidearen Oinarriak euskal enpresa eta erakundeetara nazioartekotzeko eta merkatu berrietan (sortu berrietan eta garapen bidean dauden herrialdeetan) txertatzeko aukera estrategikoa eskaintzen die horien ezaugarriak kontutan hartuta: merkatua, gizartea, antolamendua, legeak, azpiegiturak...



2.2.- BEK

NOBEDADEAK

- > Berritzaileen Euskal Komunitatea (BEK) hiruhileko honetan 2.821 pertsona erregistratuta izatera iritsi da; aurreko hiruhilekoarekin alderatuta % 45eko hazkundera. Saria duten 2 erronka berri jaurti dira eta 116 talde daude sortuta.
- > "Euskaltelen banda zabalaren zerbitzu berriak" Euskaltel Erronkako Epaimahaiak Berritzaileen Komunitatean 1.000 euroko bi sari eman zituen jasotako proposamenen interes, esfortzu eta sormena saritu nahian. Saridunak Marco Einöder "Helpdesk con Escritorio Remoto" proposamenarekin eta Daniel Sebastián "K-BOX" proposamenarekin izan ziren. Sari-banaketa BECen egin zen 2010eko uztailaren 23an, Euskaltel Fundazioak antolatutako Euskal Encounter-ean.
- > Innobasqueren erronka: "Marka gure Komunitatearentzat" BEKeko kide diren 8 pertsonaz osaturiko epaimahaiak erabaki zuen.
- > BEK sare sozialetan: orrialde berria Facebooken eta profila Twitterren.

openideiak
etorkizuna **construyendo**
eraikitzen **futuro**

2 <<< Inguruarekin bat egitea

BERRITZAILEEN EUSKAL KOMUNITATEA

Lankidetzarako eta parte hartzeko tresna. Komunitateak, Innobasquek erakunde publiko zein pribatu guztien eskura jarzen duen plataforma dinamikoa eskaintzen du. Helburua, gizarte zein pertsona gisa, aurrean ditugun mota guztietako erronkei aurre egiteko berrikuntza irekia sustatzea da. Horri guztiari, ekonomia-, gizarte- eta giza garapenerako esparru guztiekin lotuta (ingurumena, enpresa, teknologia, gizartea, kultura) dugun ezagutza eta konpromisoa eskaini diezaiogegu. Komunitateari esker, erakunde guztietan berrikuntza irekirako proposamenak dinamiza ditzakegu, gure bazkide guztien esku dagoen tresna baita eta ekintza-lerro estrategiko guztietara bideratuta hedatzen baita.

www.comunidadvascainnovadores.net

LASTER EGITEKOAK

- < Gomendioen Katea proiektuaren eta "Eguneroko berrikuntza" argitalpenaren aurkezpena. Alhondiga Bilbao-n, 2010eko urriaren 27an.
- < Marka berriaren eta BEKen irudi aldaketaren aurkezpena.
- < BEKen bloga abiaraztea.



2.3.- INGURUNEAK: Pertsonak / Proiektuak / Erakundeak

HIZKUNTZEN INDUSTRIA

- > Arabako Foru Aldundiak, Gipuzkoa eta Bizkaikoak egin bezala, hazkunde handia izan dezakeen sektore honen garapena laguntzeko asmoa adierazi du.
- > Lehen Batzar Nagusian aurkeztutako aurrekontuak onartu eta 4 batzorde operatibo sortzea erabaki da:
 - Langune sortzen eta garatzen
 - Nazioartekotzea
 - Lehiaketa eta lehiakortasuna
 - Garapen teknologikoa eta berrikuntza

KUDEAKETA AURRERATUKO KASUAK

Jakintzaren Klusterrak 1997tik eta Innobasquek 2008tik urtero argitaratutako Kudeaketa Aurreratuko Kasuak Euskadiko enpresen 100 kasu baino gehiagoren bilduma da eta horretarako, 3 euskal unibertsitateko (Deustuko Unibertsitatea, EHU eta Mondragon Unibertsitatea) 96 irakasleko talde batek egin du lan. Kudeaketa Aurreratuko Kasuak idazteko jarraitzen den metodologiak oinarritzat hartzen du Harvardeko kasuetatik abiatuta zabalduetako kasuen metodoa, baina lortu nahi diren helburuetara egokitua, hau da, irakurlea kudeaketako benetako esperientzietara hurbiltzea eta bere erabilera ikasgelan edo enpresarietzako mintegi batean erraztea. Horretarako, enpresaren ibilbidea jasotzen da, hau da, hartu dituen erabakiak, kanpoko egoerei aurre egiteko daukan modua, sortu zaizkion arazoak eta konpontzeko erabili dituen bideak, izan dituen aukerak eta horiek aprobeztatzeko moduak. Idazketa-prozesuak hainbat fase ditu: prestatze fasea, non enpresa aukeratu eta idazketa taldea sortzen den; informazioaren bilketa fasea, zeinetan alde aurreko informazioa bildu, elkarrizketetarako

protokoloa prestatu eta elkarrizketak egiten baitira; eta, azkenik, kasuaren idazketa, kalitate, zehaztasun eta interes handiena bermatuko duten gidalerro batzuei jarraituz.

- > 2010eko ekainean, Kasuen web-orri berria jarri zen martxan (www.casosinnobasque.com), gaur egun dauden enpresen kasuen bilduma ikusi eta deskargatu ahal izateko. Orain arte 2.000 deskarga baino gehiago egin dira. Gehien deskargatu direnak honakoak izan dira: Silverspace, Lantegi Batuak eta Ega Master.
- > Argitaratu den azken kasua Guascor taldearena izan da eta arrakastaren faktoreak adierazten dira bertan: Guascor Taldea gauza izan da bere burua besteengandik bereizteko eta enpresa global bihurtzeko 30 herrialdetara baino gehiagotara hedatuz.

ITACA FOROA

Bizkaiko Foru Aldundiko Berrikuntza eta Ekonomia Sustapen Departamentuak sustatutako foro honetan, Innobasquek dinamizazio-lanak burutzen ditu. Foroa aldaketa-borondatea sortu eta gure enpresa-errealitatea, pertsonen beren gaitasun guztia garatu eta hedatzeko aukera eskainiko dien enpresa berritzaile eta parte-hartzailearen paradigma berrirantz eraldatzen laguntzeko eratu zen. Azken hiruhilekoan, Leroy Merlin-en kasua aztertu dugu. Ondorioak:

- > Pertsonak proiektuarekin, "beren" proiektuarekin, identifikatzea.
- > Beren langile eta bezeroek etengabeko erabaki-hartzeak zuzentzen dituzten kudeaketa-prozesuak bultzatzearen aldeko apustu garbia.

<http://foro-itaca.wikispaces.com/>

2 <<< Inguruarekin bat egitea

Berrikuntza pertsonengan dago eta pertsonen garatzen dituzten gaitasunak dira gizartearen balio nagusia. Berrikuntza, beraz, prozesu zabaldua dugu, enpresetan, orotariko entitateetan, erakunde publiko eta pribatuetan, kulturen, hirietako bizitzan... eragina duena. Gure lanaren funtsezko zati bat pertsonen (gizartearen) gaitasunak garatzen laguntzea da, bultzatzen ari garen Eraldaketak oinarri erreal eta iraunkorra izan dezan. Zentzu horretan, hainbat izaeratako ekimenak garatzen ditugu aurrez deskribatu ditugun dinamika osatzen dituztenak.

ILDOAK

- < Hizkuntzen Industria
- < Kudeaketa aurreratuen kasuak
- < Adimen Emozionalaren Partzuergoa
- < Itaca Foroa

< **Claudio Naranjo irakasleak emandako konferentziaren ARRAKASTA: 100 pertsona baino gehiago Innobasquen [Itzarri Consulting]**



2 <<< Inguruarekin bat egitea

2.3.- INGURUNEAK: Pertsonak / Proiektuak / Erakundeak

ADIMEN EMOZIONALAREN PARTZUERGOA: BERRIKUNTZA PERTSONENGAN

Adimen Emozionalaren Partzuergoa, CIE, 45 erakunde eta 70 pertsona baino gehiagok osatzen duen taldea da eta aktiboki ari da lanean pertsonengan berrikuntza ikertu, esperimentatu eta bultzatzeko. Berrikuntza pertsonengan, garapen pertsonal eta profesionalerako, ekipoen errendimendu hobetzerako, bai eta gure zati diren erakunde eta ingurune sozialetan berrikuntza eta eraldaketa errazteko funtsezko elementu dugu. CIEk oinarritzko hiru ardatz ditu: Pentsamendua, Emozioa eta LankideKINTza. Hirugarren hiruhilekokoan zehar honako jarduerak hauek garatu dira:

1) 2 tailer monografiko Partzuergoko kideentzat:

- "Emozio Nahastuak. Sare sozial eta 2.0 tresnetara hurbiltzea" ikaskuntza-tailerra. 18 parte-hartzaile. 2010eko Uztailak 22.
- "Sormen Emozionala CIEren 3 erronka estrategikotara aplikatuta" ikaskuntza-laborategia. 17 parte-hartzaile. 2010eko Irailak 23.

2) 4 lan-talde eta proiektu-ekipok beren bidea jarraitzen dute:

- "Coaching, lidergo-estilo bat" lan-taldea CIE kolektiboari zuzenduriko tailerrean ari da lanean, coaching diziplinaren inguruan sakondu eta aukerak ikertzeko aukera eskainiko duena.

- "Barnetegia Emozionala" ekipoa. Lan Ekintzak antolatuko duen bere lehen edizioa martxan jartzeko azken xehetasunak zehazten ari da. Datorren urriaren 8an aurkeztuko da eta 5 tailerrean garatuko da, urritik azarora bitarte.

- Instagi programa esperimental. Elektrizitatearen sektoreko ETEetako zuzendaritza ardurak dituzten pertsonentzako programa esperimental. Bereziki, langile eta bezeroengan arreta jarriz kudeaketa-eredu berriak sortzeko gaitasun sozio-emozionalen garapena lantzen da.

- "Ekipoen prestakuntza" mintegia aholkularientzat, Azucena Vegak sustatua eta Sabino Ayestaránek dinamizatua. Bertan, 10 erakunde hartu dute parte.

3) CIE Sare Sozialetan: Facebook-en gero eta gehiago gara, 1.500 jarraitzaile baino gehiago, eta baita LinkedIn-en, 174 profesional sarean.

LASTER EGITEKOAK

< KASUAK

- Nazioarteko Lankidetzari buruzko azterketa tematikoa, gure inguruneke 6 enpresen kasuak jasotzen dituen: ESI, Hine, Geyser-Gastech, Orkli, Rinder eta Tamoin.
- Euskararen Normalizazioan bi kasu berri: Txingudi Ikastola eta Lizarra Ikastola. Soziolinguistika Klusterrarekin batera landuak.

< CIE

- Coaching, lidergo-estilo bat. CIEko Coaching taldeak dinamizatua eta Coaching Estrategikoa, Detalent, Hz Aholkularitzak sustatua (2010eko urriak 28).
- Umorea eta positibotasuna enpresak lehiakortasun-faktore gisa. Risa Inteligente eskolak eta Ideo Consultores-ek dinamizatua (2010eko azaroak 18).
- "Gestión emocional en acción" argitalpenerako talde motorraren egituraketa.
- Barnetegia Emozionala (2010eko Urriak 29 eta Azaroak 26).
- World Emotion 2010 (2010eko Abenduak 2).

< FORO ITACA

- Ekonomia irekiari buruzko saioa. Ekonomia irekiari buruzko 3 enpresa-kasuren aurkezpena eta "errepika daitezkeen" jardunbide egokien identifikazioa.



<<< Gure konpromisoa

< **I+G+B-ren ekarpenaren hobekuntza kapital ekonomiko/gizabanakoaren kudeaketaren eraginkortasuna handiagoa izateko eta epe laburrean krisi globalaren ingurunera moldatuta emaitzak lortzeko da Innobasque-k proposatzen duen hirugarren estrategia ekintzaren ildoak:**

- > I+G+B aktibitatearen igoera eta euskal erakundeetan izan duen eraginkortasuna hauen funts mugatuak kontutan hartuta eta I+G+B-ren eta aurrerapen sozialaren arteko erlazio zuzena:
 - Lehiakortasun gehiago;
 - Enplegu gehiago;
 - Oreka soziala;
 - Kosmopolitagoa (nazioartekoa).
- > "Euskal I+G+Bren Estrategia Koaderno"-ren helburuak betetzearen jarraipena, VII. Esparru Programako lehen aldia zehar. Koaderno honek Euskadiko funtsak %37an gehitzea da lehen aldirako (2007-2010) eta %0an bigarreneko (2010-2013) VI. Esparru Programa errespetatuz.
- > Ekimen estrategiko zientifiko-teknologiko berriak.
- > Erabaki estrategikoak hartzea erraztea (enpresak/erakundeak)
- > Enpresak nazioartekotzen laguntzea.
- > Bokazio ikertzaileen sustapenaren kudeaketa operatiboa.
- > Berrikuntzaren Euskal Agentziako agenteen lankidetzaren teknologikoa indartzea.
- > Eskaera eta eskaintza teknologikora hurbilketa.
- > Nazioarteko sare/lider nagusiekin konexioa (diplomazia berritzailea)

3 << Euskadi eraginkorrarekin konpromisoa

2010/2011
 JARDUN-LERRO ESTRATEGIKOAK



3.1.- I+G+b Sistemaren nazioartekotzea

ERA-NETak:

- > **MANUNET-EN ARRAKASTA.** Euskadi erreferentziatzeko eskualdea da Europako Batzordearentzat, bai eta Europako beste eragile batzuentzat ere. Innobasque (MANUNETen koordinatzaile gisa) gonbidatu du Europako Batzordeak, ERA-NET delakoan ordezkari gisa, GPC-ESF/EuroHORCs delakoak antolatutako Joint Programming-erako "Esparru Baldintzak" egituratzeko bide egokien inguruan eztabaida dezan. Ekimenak ikerketa finantzatzeko nazio-mailako programen arteko lankidetzaren eragotzea du helburu.
- > **SMARTGRIDS: ERA-NET** honek nazioz gaindiko ikerketa-jardueren garapena (I+G) sustatzen du, Europan Sare Elektriko Adimendunen azpiegituraren garapena azkartzeko asmoz. "European Action Plan, Energy Policy for Europe" delakoaren bidez 2010ko Europako estrategian proposatutako hazkunde zentzudunaren eta CO2 murriztearen helburuekin bat dator. Lehen deialdia amaitu ostean, ERA-NET horren partzuergoa jada bigarrenean ari da lanean. Bigarren hori, 2011 hasieran abiaraztea aurreikusten da.
- > **Innobasqueren "ERA-NET sareak eta MANUNETen arrakasta"** txostena EBK Belgika presidente zuela Europako Batzordeak antolatutako "Industrial Technologies Conferences 2010" biltzarrean (Brusela, irailak 8). ERA-NET horiek maila gisa jotzen dute ETEek, 7. EP bezalako beste programa batzuetan parte hartzeko aukera izan dezaten, horien eta nazio-mailako finantzazioa duten programen artean kokatzen baitira.
- > **"Autonomia Erkidegoetan identifikatutako Praktika Onenen Manuala, I+G+b esparruko Nazioarteko Programatan parte hartzea Lagundu eta Sustatzeko"** izeneko lanaren **aurkezpena**, (Santander, irailak 8), "III Encuentro para la Internacionalización de las Estrategias Autonómicas de I+D+i" topaketaren barruan. Innobasque, Eusko Jaurlaritzako Teknologia Zuzendaritza eta SPRIk Garapen Teknologiko Industrialerako Zentroarekin (CDTI) batera lan egin dute txosten

hori garatzen. Bertan, lankidetzaren teknologikoaren esparruan I+G laguntzeko eskualdeetako sistemen nazioartekotzeari buruzko jardunbide egokiak identifikatzen dira. Euskadi honakoei esker nabarmendu da: informazio eta aholkularitza-zerbitzuen bidez, I+Geko nazioarteko programetan parte hartzeko helburuen planifikazio estrategiko eta zehaztu egin du eta I+G+bko nazioarteko programa eta proiektuetan sentsibilizazio eta prestakuntzarako jardun zehatzak burutu ditu.

EENBASQUE - BASQUE ENTERPRISE EUROPE NETWORK PARTZUERGOA (VII. Programa Esparrua)

- > Lankidetzaren eta Berrikuntzaren jardunaldia: arrakastarako giltzarriak Europan. Pasa den **uztailaren 1ean, Bilboko Merkataritza Ganberan** eginko mintegia, **Francesco D. Sandulli Open Innovation-en aditua eta Henry Chesbrough-en kolaboratzailearen** parte-hartzearekin. Bertan, enpresa-lankidetzak eta berrikuntzak enpresa-estrategian duen garrantzia azpimarratu zen.
- > **I+Gren emaitzak ustiatzeko tailerra.** Erakunde bakoitzaren ezaugarri eta estrategietarako egokiak diren I+Gren emaitzak ustiatzeko laguntza-tresna eta -ereduak eskuratzea errazten duten 5 jardunaldi praktikoa. (2010eko ekainaren 3tik uztailaren 15era).

3 << Euskadi eraginkorrarekin konpromisoa

MARTXAN DAUDEN PROIEKTU EUROPARRAK

ERA-NETak:

- < Manunet (Fabrikazio Teknologiak)
- < Manunet II (Fabrikazio Teknologiak)
- < Ernest (Turismo Jasangarria)
- < Smartgrids (Sare Elektriko Adimendunak)
- < Compera (Programen Sarea CICen finantzazioarekin)
- < Euroanomed (Nanomedikuntza)
- < Matera (Materialak)
- < ETB-PRO (Bioteknologiak)
- < MNT II (mikro eta nano Teknologiak)
- < Lead-ERA (Merkatu Liderrak Europarako)

ESPON:

- < ReRisk proiektua

ENPRESARI ZERBITZUAK:

- < Enterprise Europe Network-EEN (VII. Esparru Programa)

EEN Basque "Enterprise Europe Network" Sareko kide da. Sarea Europako Batzordeak jarri zuen martxan Enpresa. "Enterprise Europe Network" sareak informazio- eta aholkularitza-zerbitzuak eskaintzen ditu Europa mailako politika eta negozio-aukerekin lotuta, bai eta teknologia-transferentziako prozesuetan eta I+G+bren finantzazio-programa europarrak eskuratzeko laguntza ere. Sarea Euskadin dugu SPRI, BAI, Bilboko Merkataritza Ganbera, Arabako Ganbera, Gipuzkoako Ganbera, Bizkaiko Foru Aldundia eta Innobasquek osatutako Partzuergoaren bidez.

LASTER EGITEKOAK


- < ReRisk: proiektuaren emaitzen aurkezpena Bruselan, Open Days direlakoan. 2010eko Urriaren 5ean. (ela).
- < ERA-NETen deialdien erabakiak: MNT, LEAD-ERA, MANUNET, MATERA
- < Euskal I+G+b-aren Koaderno Estrategikoaren berrikuspena.
- < Jardunaldiak:
 - MANUNET biltzarra: 2010eko urriaren 7an.
 - VII. EPren ETEen Programaren Informazio Jardunaldia: 2010eko urriaren 15ean.
 - ERA-NET Informazio Jardunaldia: 2010eko azaroaren 19an.
 - Ikastaro Aurreratua I+G+b-ren Nazioarteko Proiektuen Kudeaketan: 2010eko urriak 22 Gasteizen (64 o.).
 - "Proiektu-proposamenen hobekuntza Europar Batasuneko VII. Esparru Programa-Garraioaren 2010eko deialdiaren barruan" ACICAErekin, 2010eko urriaren 5ean.



3 << Euskadi eraginkorrarekin konpromisoa

3.2.- VII. ESPARRU PROGRAMA

"Neurtzen ez dena ez da" ideia barneratuta, 2006an, "Euskal I+G+b Europan, Koaderno Estrategikoa" argitaratu zen. Txostenaren helburua bikoitza zen: I+G+b-ko Programa Europarrei begira Euskadiren iragana, oraina eta etorkizuna ulertzeko eta, bereziki, helburuen planifikazioa aurkeztea Europako egungo Esparru Programetan parte hartzeko: I+Gren Europako VII. Esparru Programa (VII. EP) eta Lehiakortasun eta Berrikuntzarako Europako Esparru Programa. Innobasquek, bere Behatokiaren bidez, programa europar horietan parte hartzen duten eragileen parte-hartzea monitorizatu eta Koaderno Estrategikoetan proposatutako helburuekin erkatzen ditu.



VI. Esparru Programaren emaitzen, Koaderno Estrategikoaren (07-10) helburuen eta VII. Esparru Programaren (07-10) behin-behineko emaitzen arteko erkateta sektoreka.

VII. ESPARRU PROGRAMAREN MONITORIZAZIOA

I+G+b-ren nazioartekotzean aurrerapausoak emateko gure zientzia eta teknologia eta industriako eragileek nazioarteko eskenatokian duten kokatze-mailaren diagnosi fidela behar du. Diagnosi hori burutu ahal izateko, Euskal Eragileek Europako I+G+b proiektuetan duten parte-hartzea monitorizatzea da. Horretarako, Innobasquek "Europako I+G+b programetako euskal parte-hartzeari buruzko Behatokia" kudeatzen du, parte-hartze hori denbora errealean neurtzen duen tresna.

ITZULERAKO BEHIN-BEHINEKO DATUAK

Garapen Teknologiko Industriarako Zentroak 2007-2009 aldian zehar VII. EParekiko argitaratutako behin-behineko datuen arabera, EAE finantzazio gehien itzultzen duen Autonomia Erkidegoa litzateke Madril (% 32) eta Kataluniaren (% 28,8) ostean % 12,7rekin. Espainiak 855 M euroko itzulera lortu du aldi horretan. Eraitza horiek Espainia seigarren lekuan jarri dute, Alemania, Erresuma Batua, Frantzia, Italia eta Holandaren atzetik.

Gaur egun, 2007 eta 2010 artean Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sistemaren Eragileek I+G+b europar programetan izan dugun parte-hartzearen bilakaeraren azterketa ari gara prestatzen. Lortutako datu esanguratsuenetako bat, ekoizpen, garraio eta energiarekin lotutako nazioarteko lankidetzaproiektuetan euskal erakundeek duten nagusitasuna da.

Nahiz eta Koaderno Estrategikoak 2006an helburu batzuk adierazi zituen, gaur egun, VII. EPn jokoaren arauak aldatu direla ikusi ahal izan dugu. Tradizionalki erabilitako mekanismoa zuzenean Europako Batzordeak kudeatutako proiektu irekien deialdien osagarritasunean oinarritzen zen eta beraz, Programen Programa gisa har genezakeen. Aitzitik, egoera horretatik beste batera pasa gara, publiko-pribatuaren arteko lankidetzarako joera duten ekimenak antzematen hasi baikara. Eskenatoki berri horren aurrean eta kontuan hartuz 2007tik 2010era VII. EPn eta CIPen euskal parte-hartzearen azterketaren ondorioak, 2006an proposatutako helburuak berrikustea eta Koaderno Estrategikoan dauden informazio eta erronkak eguneratzea gomendatzen da.



3 << Euskadi eraginkorrarekin konpromisoa

3.3.- ZTBESaren dinamizazioa

NOBEDADEAK

Talentu Ikertzailearen prestakuntza

Iñaki Goenaga - Zentro Teknologikoen Fundazioa (IG-ZTF)

Fundazioak, bere beka-programen bidez, zientzia eta teknologian interesa duten eta benetako zientzia-bokazioa duten pertsonen prestakuntza areagotzea du helburu. "Kaxatik kanpo" pentsatzen duten, marmoka, ur-tanta edo intsektu batzuetatik haratago ikusten duten gazteen prestakuntza.

Iñaki Goenaga Fundazioaren 2010eko Beka Programak aukeraketa-prozesuaren azken etapan daude. Deialdi honetan, ehun beka baino gehiago eskaini dira eta 2009an baino % 30 eskaera gehiago jaso dira. Bekak eskuratzen dituzten pertsonak urrian hasiko dira zentroetan beren ezagutzetan sakontzen. Arloak askotarikoak dira, hala nola, Biologia Molekularra eta Biomedikuntza, Sistema Elektronikoa Aurreratuak, Mikro eta Nanoteknologiak, Mekatronika eta Zehaztasuneko Ingeniaritza edo Historia eta Lurralde Ondarea.

	2009	2010
Eskainitako beka	116	109
Emandako beka	62	Prozesuan
Jasotako eskaerak	416	540
Zentro parte-hartzaileak	15	17
Eskatutako titulazioak	20	27

Ineustar – Zientzia Azpiegitura Handiak

ESS-Bilbaok eta Innobasque-Gipuzkoa Berritzen-ek sustatutako Zientziaren Industria Elkarteak lankidetzaren hitzarmen teknologiko-industrial sinatu dute, ESS-Bilbaoren zerbitzu eta instalazioen esperimendu-gunearen zati izango diren diseinuaren eta ekipoen hornitzaile izan daitezkeen enprekin harremanak hobetzeko.

Bokazio zientifikoak: First Lego League

First Lego League Euskadi 2010 delakoaren abiarazte-jardunaldia. Aurreko edizioan lortutako arrakastaren ostean, (20 euskal taldeetatik 3k nazioarteko lehiaketetara iristea lortu baitzuten), pasa den irailaren 24ean, Innobasque eta Euskaltelek sustatutako edizioa aurkeztu zen. Bertan, 10 eta 16 urte bitarteko 250 gaztek baino gehiagok hartuko dute parte. FLL Euskadi edizioak Gaiker-IK4 eta Tecnalia zentro teknologikoen lankidetzaren du eta gazteei zientziara modu errealeagoan gerturatzeko lagunduko die. Guztira, aipatutako zentro teknologikoen instalazioetan 14 prestakuntza-jardunaldi emango dira.

Abiarazte-jardunaldian, José María Villate, Innobasqueko Zuzendari Nagusia, eta Nerea Lupardo, Euskalteleko Erakundeekiko Harremanen Zuzendaria, bertaratzear gain, Alex Bengoa, Iñaki Goenaga Zentro Teknologikoen Fundazioaren Presidentea, Pedro Luis Arias, Ikerketa eta Unibertsitate Sailburuordea, Edorta Larrauri, Eusko Jaurlaritzako Teknologia Zuzendaria eta Begoña Ochoa, Eusko Jaurlaritzako Zientzia Politikako Zuzendaria izan ziren proiektuari beren babesa adierazteko.

FIRST LEGO LEAGUE

FLL ikasteko ekimen original eta iraultzailea da, 1998an FIRST (For Inspiration and Recognition of Science and Technology) Fundazioak eta Lego-k sortua, eta ordudatik munduko hainbat herrialdetan garatua. Bere helburua gazteengan trebetasun sortzaileak, pentsamendu analitikoak, talde-lana eta, bereziki, aldi berean, ezagutza teknologikoa eta zientifikoak hedatuz berrikuntza-balioak sustatzea da. Lehiaketak 4 lan- eta ikasketa-esparru proposatzen dizkie gazteei: lehiaketa robotikoa, proiektu teknikoa, proiektu zientifikoa eta talde-lana. Urtero, antolatzaileek erronka global bat proposatzen dute talde parte-hartzaileek, beren ikuspuntuetatik, mundu guztiari eragiten dion arazoari erantzun berritzaileak eman diezaioten. Edizio honetan proposatutako erronka "Body Forward" edo "Ingeniaritza biomedikoa" da. Horri esker, lesioak konpondu, aurretiko joerak gaituratu eta gorputzaren ahalmena maximizatzeko modu berritzaileak bilatzeko aukera izango dute taldeek. Helburua, azken finean, guztiontzat bizitza zorianitsu eta osasungarriagoak lorzea da. Nazioarteko lehiaketa honi buruzko jakingarriak:

- > 60 herrialde
- > 155.000 gazte
- > 12.000 talde
- > 30.000 boluntario
- > 200 sponsor baino gehiago
- > Mundu osoan 500 txapelketa baino gehiago

LASTER EGITEKOAK

- < Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Astea (azaroan zehar).
- < Iñaki Goenaga Fundazioaren Bekak emateko ekitaldia, 2010eko azaroa.
- < Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailarekin Hitzarmena sinatzea - Bokazio zientifikoaren sustapena.
- < First Lego League Euskadi: abenduak 11, Euskaltelen egoitzan.



3 << Euskadi eraginkorrarekin konpromisoa

3.4.- Diplomazia berritzailea

NOBEDADEAK

1. 2010eko uztailaren 13an, Wielkopolska eskualdeko 8 pertsonaz osaturiko ordezkari harrera egin genion. Ordezkaritzaren burua Wielkopolska eskualdeko Presidenteordea zen (Eskualde Politika, Eskualdeko Programa Operatiboak, Landa Ekonomia eta Garapenaz arduratzen da).
2. VII. Euromontana Biltzarra (Europako eskualde menditsuena) ospatu zen Lillehammer-en eta, 2010eko irailaren 16an, euskal berrikuntza-sistemaren aurkezpena egin genuen.
3. Innobasqueren eredu publiko-pribatuaren eta dinamika ekoberritzailearen gaineko interesa zuten EEBBetako Kongrasuko Ordezkaritzaren bisita. 2010eko irailaren 8an.

DIPLOMAZIA BERRITZAILEA

Gure nazioarteko kokatzea errealitate berritzaile gisa sendotzeko, gure erakundeei beren nazioartekotzean laguntzeko eta eragin handien duten nazioarteko nodoekin lotzeko.

INNOCAMPUS

Unibertsitate eta merkatuaren arteko lankidetzaren sustatzeko, Innobasquek euskal unibertsitatearen esparruarekin lankidetzaren akordioak ditu planifikatuta, Innobasquek proiektuak sendotzen doazen heinean, graduondoko ikasleek beren praktikak egin ahal izateko.

LASTER EGITEKOAK


- < American Marshall Fellowship Program-en Koordinazio Bilera.
- < Conacyt (Consejo Nacional de Ciencia y Tecnología, Mexiko) ordezkari bisita. 2010eko urriak 19.
- < Bilera Vicente Ferrer Fundazioarekin (India).



3 << **Euskadi
 eraginkorrarekin
 konpromisoa**

3.5.- Innobasqueren gastuen arrazionalizazioa

Euskadi eraginkor batekin dugun konpromisoan eta funtzionamendu-gastuen arrazionalizazioa gomendatzen digun krisi-egoeran, 2010eko aurreikuspenetan soldata eta gastu orokorrak %15 aurreztea espero dugu.




EKONOMIA IRAUNKORRA ETA KONTZIENTZIAZIOA

2010ean zehar, Innobasqueko boluntario-talde batek (ICI iraunkorra) energia, papera, tonerra eta abarren kontsumoak murrizteko ekintza-plana diseinatu du. Diseinu horren ondorioz, orain arte, paperaren kontsumoan % 14 aurreztu dugu eta tonerrean % 27, 2009ko ekitaldiaren aldi berarekin parekatzen badugu.

Halaber, bulegoen egoerari buruzko energia ikuskapena burutu da. Azterketaren arabera, instalazioak egoera optimoan badaude ere, maila partikularrean, talde sustatzaileak proposatutako kontzientziazioa sendotzeko gomendioa egiten da.

INNOBASQUEREN BALIO ESKAINTZAREN AZTERKETA

2010eko ekitaldiko azterketaren hasiera. Balioa atxikitako taularen arabera kategorizatzen ari da.



*BPGan eragin induzituak edo biderkatzaileak ez dira kontutan hartu.



Berrikuntza sozializazioa

ZEHARKAKO ILDOA

BERRIKUNTZA SOZIALIZATZEA ETA SUSTATZEA

- > Transformazioaren beharra sortzen jarraitzeko euskal gizartean.
- > Berrikuntza hedapenak ibilbide luzea duen lana da, ezinbestekoa da Innobasque Sareko agenteek egiten duten lana ezagutzera emateko eta hau aintzat hartzeko, bai barruan zein kanpoan.

Barrurantz, ondokoa lortzeko:

- > loturak eta barne-gaitasunak errazteko;
- > berrikuntza sortzeko;
- > Topagunetik sortzen diren aukeren ingurune estrategikoa eraikitzea.

Kanporantz, ondokoa lortzeko:

- > Eszenatoki berriak identifikatzeko
- > gure baliabideak inbertitzeko lehentasunak aukeratzeko begirada enfokatzea (urriak);
- > Kanpoan talka sortzea, berrikuntza modelo propio batek duen indarra erakutsiz (emaitza objektibogarriekin).

> Innobasqueren Asteartek

- **2010eko irailaren 28an**, "Be in Gipuzkoa" liburuaren aurkezpena. Gipuzkoa, protagonista diren pertsona eta erakundeek adierazitakoaren bidez, berrikuntzarekin identifikatzen duen agiria. Jardunaldian honako hauek parte hartu zuten: Juan Mari Uzkudun, Gipuzkoa Berritzen-eko presidentea, Jose Miguel Guridi, Gipuzkoako Foru Aldundiko Berrikuntza zuzendaria, Gorka Zabaleta, testuaren egilea. 50 pertsona bertaratu ziren. "Be in Gipuzkoa" Elkar liburu-dendetan dago eskuragai. [GIPUZKOA BERRITZEN]

> Komunikabideetan lortutako eragina

- 2010ean Innobasquek pilatutako balioa 4.005.850 eurokoa da (publizitate-baliokidetasunaren arabera).



Berrikuntzaren sozializazioa

ZEHARKAKO ILDOA

Hiru ekintza ildo estrategiko erakusten ditu, bai Innobasque sarearen barnera, zein kanpora, gizartean eragina sortuz kanal (propioak edo beste bitarteko batzuen bidez) eta aktibitate desberdinen bidez.

INNOBASQUEREN KANALAK


- < **Basque Innopolis:** Innobasqueren asteroko buletina. www.basqueinnopolis.com web-orrian eskuragai.
- < **Innobasqueren asteartekak:** Hileroko hitzordua berrikuntzaren protagonistekin, dibulgazio foro irekian, euskal berrikuntza pertsonen, erakundeen eta komunikabideen ikuspuntuaren erdian kokatzeko asmoarekin. Innobasqueren youtube orrialdean kontsulta daitezke: [youtube/innobasque](http://youtube.com/innobasque)
- < **Argitalpenak:** Innobasqueren argitalpen-ildo www.innobasque.com web-orrian eskura daitezke.
- < **Innobasque on-line:** Innobasqueren on-line jardura web-orri, blog eta sare sozialetan.

LASTER EGITEKOAK

- < Gipuzkoa Berritzenen 2008-2010 memoria azaroko Berritzaileen Topaketan aurkeztuko da. 2010eko azaroak 16. [GIPIZKOA BERRITZEN]
- < Garuna ezagutzea hezkuntzan bikaintasuna lortzeko: neurozientziei eta hezkuntzari buruzko argitalpena. [GIZARTE BERRIKUNTZA]. Innobasque-ko Asteartekak ekimenaren barruan, azaroak 2
- < I+G+b prototipoetatik sortutako produktu berrien industrializazio eta merkatuzatzea. [GIPIZKOA BERRITZEN]

> INNOBASQUE 2.0

Innobasque 2.0



Beste toki sarean

- [Consortio Inteligencia Emocional](#)
- [Casos en gestión avanzada](#)
- [The Ten Million Project](#)
- [The week -Astea- La Semana](#)
- [First Lego League Euskadi](#)
- [Fundación Iñaki Goenaga](#)
- [Berritzaileen Topaketa](#)
- [Basque Innopolis](#)

Linked in

4 Talde

- [Consortio de Inteligencia Emocional](#) 125 pertsona
- [Ekintzaitzeta Innobasque Emprendizaje](#) 134 pertsona
- [Innobasque](#) 1452 pertsona
- [Red Vasca de Ciencia, Tecnología e Innovación \(RVCTI\)](#) 58 pertsona

facebook

Profilak

- [Innobasque](#) 1960 lagun
- [Ekintzaitzeta](#) 932 lagun

Komunitateak

- [Innobasque](#) 1300 lagun
- [Ekintzaitzeta](#) 281 kide
- [Consortio de Inteligencia Emocional](#) 1439 kide
- [Eileuskadi](#) 153 kide
- [Gipuzkoa Berritzen](#) 446 kide

2 Blog

Lanbidean
[ThoughtinEuskadi](#)
[Blogis_el blog de innovación social](#)
[Gipuzkoaberritzen bloga](#)

Laster: [Blog Comunidad Vasca de Innovadores](#)

flickr

Albumak: 22
Ikusketak: 60.133

[Innobasque2.0](#) Delicious
22 pertsona jarraitzen dituzte gure argitalpenak
412 eduki etiketatuta (norako twitter eta web)

wikispaces

wikis for everyone

50 Wikis 1032 erabiltzaile

CVI

2151 Kide erregistratuta
3 erronka sarituta
69 talde sortuta

slideshare

Present Yourself

Aurkezpenak: 101
Jarraitzaileak: 72

You Tube

[Kanaleko bitak](#): 6358
[Harpidetun](#): 110 kanal izenpetu dira gurea
[Lagunak](#): 24

twitter

[@innobasque](#)
1444 jarraitzaile
[@ekintzaitzeta](#)
85 jarraitzaile
[@innosocial](#)
111 jarraitzaile
[@innosocial](#)
111 jarraitzaile
[@gipuzkitzen](#)
168 jarraitzaile
[@innosare](#)
11 jarraitzaile